

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

2020TMIZ ordaintzeko eta haren gaineko erreklamazioak egiteko epea irekitzea

2020ko martxoaren 18an, ALHAOn (32. zk.), trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokion 2020ko errolda argitaratu zen. Orduko administrazio epeak bertan behera utzi ziren eta 2020ko ekainaren 1etik aurrera berrekingo zaie. Jakinarazten da, azalpen gisa, ezen hamabost egun baliouduneko epea 2020ko ekainaren 1etik 19ra izango dela.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin betiko onetsizat emango da erabaki hau, eta honako epe hauean ordaindu beharko da:

A) Borondatezko epea: 2020ko uztailaren 1etik irailaren 1era (biak barne).

B) Betearazte aldia: 2020ko irailaren 2tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ez da berandutze interesik eskatuko geroratuko edo zatikatuko ordainketa erabakietan, baldin eta borondatezko epean eskatu badira eta haiek sortzapen ekitaldian bertan ordaintzen badira.

Lapuebla de Labarca, 2020ko maiatzaren 29a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ